

JARDUERAK

Gure enpresa, Albolbs, fundatu dugun lau ekintzaileok, eginkizun jakin batzuk izango ditugu. Negozioa bere onean mantentzeko, enpresa eguneratuta eramateko eta, batez ere, bezeroekiko harremanak mantentzeko. Azkenean, bezeroak baitira Albolbsen funtsa, eta hauek eduki ezean, negozioak ez luke aurrera egingo: gure irabazi iturriak hauen menpe baitaude.

Mirenen, artista trebetasuna ikusirik, bere ardura denden eta produktuen enbaseen diseinuaz, web orriaren itxuraz eta estetikarekin zerikusia duen edozeren erantzukizuna bere gain hartzean datza. Era honetan, denok dakigun bezala, itxurak



garrantzia duenez, dena erakargarria suertatuko zaie bezeroei eta atseginagoa egingo zaie Albolbs. Gure diseinuak, gurera sartzea bultzatuko die, sarean nabigatzea dibertigarriagoa egingo zaie eta gure produktu ontziratutako erosteko gogoak piztuko zaie. Ekintzaile honen lana bereziki bezeroak erakartzea da.

Igonek, bere gain hartuko duen lana komunikazioa da, hau da, edozein bezerok Albolbsi buruzko duda badu, produkturen bati buruzko galderaren bat, zer osagaiez osatuta dagoen plater prestaturen bat, alergiaz kontuak, ea dendak/jatetxeak jaiegun batean irekitzen diren.... erantzuteaz arduratuko da. Web orrian bezeroek utzitako galderak eta hauen telefono deiak erantzuteaz kezkatuko da. Ekintzaile honek, berezko erraztasuna izateaz gain komunikatzeko, gai nutritiboez asko daki. Bere familiako kide batek elikadurarekin arazoak izateak, familia guztiak betidanik elikadura osasuntsua eramatea egin baitu. Beraz, txikitatik asko zaindu da.

Beharrezkoa ikusten dugu bezero eta Albolbsen arteko harreman mota hau edukitzea. Bezeroek lasaitasuna izango dute eta segurtasuna eta gertutasuna transmitituko diegu, negozio batean hain garrantzitsuak direla iruditzen zaizkigun hauei. Aldi berean, dute gain, erreklamazioak esateko erabili dezakete gurekiko komunikazio hau: zerbait ez bazaie ondo iruditzen edo kexaren bat badute Albolbs jakinaren gainean mantentzeko, eta gu betiere hobera joateko.

Bezeroez aparte, enpresak beste enpresekin egindako elkarketak kontrolatzeaz arduratuko da. Hauei



eskaerak egingo dizkie eta enpresa hauekin egindako hitzarmenak mantendu eta kontrolatuko ditu. Denda/jatetxe propioekin kontaktua ere mantenduko du, zer produktu behar dituzten... jakiteko.

Maddi, sukalde munduan arituko da, biziki maite duelako sukaldatzea. Txikitatik ibili da sukaldatzen familiarekin, familiak duen tabernan laguntzen. Beraz, ongi moldatzen da sail honetan. Argi dago, ekintzaile hau ezingo dela gure denda/jatetxe propio guztietan egon, baina, mugitzen ibiliko da. Teknika berriak erakusteko, aldaketak esateko, langile berriak kontrolatzeko, errezeta berriak nola egin irakasteko... denda/jatetxe propioekin kontaktua mantenduko du, sukaldearekin zerikusia daukaten arazoak konpontzeko edo gauzak erakusteko hitz orduak finkatzeko. Orokorrean, Albolbs sukaldea martxa onean dabilen ikustea eta dena kontrolpean mantentzea da ekintzaile honen lana.



Azkenik, June, dirua kudeatzeaz arduratuko da. Zenbat diru irabazten dugun eta diru gastuak kalkulatu ditu. Bankuko kontuak eramateaz ere arduratuko da. Elkarketak egin ditugun enpresei egindako eskaerengatik, hauei zor diegun dirua zuzentzean ere arduratuko da. Aldi berean, bitartekariei zenbat saldu diegun kalkulatu du. Baita, denda/jatetxe propioetan saldutako produktu kopurua. Honetarako, denda/jatetxe propioetako langileek hileroko kalkulu orri bat entregatu beharko dute kontuak eguneratuta eramateko. Diru kontuak zuzen doazela arduratuko da, betiere irabaziak galerak baino gehiago direla ziurtatuz, nahiz eta, hasieran galerak eduki.



Ekintzaileen lanez gain, guztiok egingo dugun lana, ontzirapenarekin laguntzea (gure lokalean) eta janaria ekoiztea izango da; bai plater prestatuak gure fabrika alkilatuan, bai eguneroko menua denda/jatetxeetan. Lan banaketa honek ez du esan nahi ekintzaile bakoitzak bere lanera mugatu behar duenik. Laurok ikasi beharko dugu lauroz, norbaitek egunen batean huts egiten badu. Honetarako, bilerak antolatuko ditugu gure trebezia elkarri erakusteko. Beti jakintza handitzen saiatu



behar da. Lan taldean arituta emaitzak hobekak baitira, guztiok ikasten baitugu guztiez.